



# Zurriolako Ataria

38. alea 2018-11-09

## Jantoki eraldatzaileak bisitatzen

Villabonako Zubimusu ikastolan izan ginen atzo bertako jantokia eta otordu/zaintza prozesu eraberrituak ezagutzen, Ategorrietako proiektu berrirako esperientziak ezagutzeko plangintzaren barruan.



## Guregana bisitan LHko matematika metodologia ezatutu nahian

Añorgako Amassorrain ikastolako zuzendaritza eta irakasleak bisitan izan ditugu, LHko matematika manipulatiiboaren programa ezagutzeko asmoz. [\(info+\)](#)



## DBH4koak "Gure Kasa"n

Asteartean DBH4ko ikasleak "Gure Kasa" saiora joan ziren ikuslego gisa. Hasiera batean haien egin beharra txalo batzuk jo eta zarata egitea bazen ere, azkenean aktore/aktorea lanetan ere jarri zituzten. Gure ikasleak "dantzan" ikus nahi badituzue ez galdu **datarren asteleheneko eta asteazkeneko** ETB1eko Gure Kasa-ko saioak. Ez zaizue damutuko!



## 2017an jaiotako senideen aurrematkulazioa

Urtero moduan aurrematkulazio garaia hurbiltzen ari zaigula, datoren ikasturtean **2 urteko** gelan hasiko luketen senide edo seme-alabeen datuak biltzen ari gara [hemen](#). Milesker laguntzarengatik.



## Kamisetak salgai!

Datorren **asteazkenean Soroan** eta **ostegunean Ategorrietan** 50. urteurreneko lehen kamisetak eskuragai izango dituzue, arratsaldeko 5:00etatik aurrera. Babxilegoko ikasleak arduratuko dira salmentaz.



## 50. urteurrena gehiago saretzen

Ikastolaren ohiko bide digitzal gain (webgunea, Ataria, facebook eta twitter) eta, batez ere, ikasle ohien harremanetarako, beste bi bide zabaldu ditugu [instagram](#) eta [facebooken](#).



## DUELA 50 URTE...

- Hegoaldeko iheslariak Iparraldean aterpetzen zituen *Anai-Artea* elkarteak sortu zen ofizialki.
- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala osatzen lagundu zuen René Cassin legelari baionarrak Bakearen Nobel Saria jaso zuen.

## OHARRAK / AGENDA:

- **LH3C:** Ubik. Goiz pasa. Azaroak 13.
- **LH3A:** Ubik. Goiz pasa. Azaroak 15.
- **LH6:** TXIKIZIKLO saioa Aquariumean. Goiz pasa. Azaroak 15.
- **LH1, 4 eta 5:** Haurren danborrada 2019. [Izen-ematea](#).
- **Batx1 eta 2 Arteak:** Hitzaldia euskal arteaz. Ismael Manterola. Azaroak 16.
- **Batx2:** Orientazio akademikoa. Zentruen eskaitzak Hurren. Azaroak 14.
- **Eskola Kirola:** 3. jardunaldia. A eta B.
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** [Azaroak 9-11](#).
- **Euskaraldia:** Izen-emate mahaiak. Ategorrieta eta Hurra. 17:00etan. Azaroak 13 eta 15.

## EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ  
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

## Belarriprest eta Ahobizi izateko PREST?

**EUSKARALDIAN EROSO ARITZEKO AHOLKU SAIOAK**

### Saio arinak (1,5h) Ahobizi

Azaroak 9, 18:00-19:30 Bageran  
Azaroak 19, 19:00-20:30 Bageran

### Belarriprest

Azaroak 12, 19:00-20:30 Bageran  
Azaroak 16, 18:00-19:30 Bageran

### Saio sakonak (4h) Dinamizazioa: Elhuyar Ahobizi eta belarriprestak elkarrekin

**Azaroak 10**  
9:30-13:30 San Telmo museoan

**Azaroak 17**  
9:30-13:30 San Telmo museoan

Izen-ematea saioa izan baino 3 egun lehenago [donostia@euskaraldia.eus](mailto:donostia@euskaraldia.eus) edo 943005074

**EUSKARALDIA**  
11 EGUN EUSKARAZ